

Publicaciones de la Cátedra 'Luis Michelena'
'Koldo Mitxelena' Katedraren Argitalpenak
[4]

2nd CONFERENCE OF THE LUIS MICHELENA CHAIR
KOLDO MITXELENA KATEDRAREN II. BILTZARRA
II. CONGRESO DE LA CÁTEDRA LUIS MICHELENA

Joseba A. Lakarra, Joaquín Gorrochategui & Blanca Urgell
(Eds./Arg.)

aman ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL

CIP. Biblioteca Universitaria

**Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Cátedra Luis Michelena.
Congreso (2.º 2007. Vitoria-Gasteiz)**

2nd Conference of the Luis Michelena Chair = Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra = II. Congreso de la Cátedra Luis Michelena / Joseba A. Lakarra, Joaquín Gorrochategui & Blanca Urgell (eds.= arg.). — Vitoria-Gasteiz: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2011. — xx, 699 p. ; 24 cm. — (Publicaciones de la Cátedra “Luis Michelena” = “Koldo Mitxelena” Katedraren Argitalpenak ; 4)

ISBN: 978-84-9860-601-0 D.L.: BI- 290-2012

1. Euskara (Lengua) – Congresos. I. Lakarra, Joseba A., ed. lit. II. Gorrochategui, Joaquín, ed. lit. III. Urgell, Blanca, ed. lit.

811.361(063)

All rights reserved. No part of this publication may be reproduced, stored in a retrieval system, or transmitted, in any form or by any means, electronic, mechanical, photocopying, recording, or otherwise, without the prior permission of the University of the Basque Country Press.

Debekatuta dago liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, bai eta berorri tratamendu infomatikoa ematea edota liburua ezein modutan transmititzea, dela bide elektronikoz, mekanikoz, fotokopiaz, erregistroz edo beste edozein eratarata, baldin eta *copyrightaren* jabeek ez badute horretarako baimena aurretik eta idatziz eman.

© Joseba A. Lakarra, Joaquín Gorrochategui & Blanca Urgell (Eds. /Arg.)

© The authors / Egileak / Los autores

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

ISBN: 978-84-9860-601-0

Lege gordailua/Depósito legal: BI - 290-2012

Fotokonposizioa/Fotocomposición: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Astarloaren sintaxia eta hitz ordena naturala

Ricardo Gómez
JUMI, UPV/EHU

Abstract

This paper examines the syntactic ideas of Pablo Pedro Astarloa (1752-1806) as he explained in his *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva* (1805), and tries to put them in the context of the debate between rationalists and sensualists, who argued whether there is a «natural order» of words. Astarloa developed a system for accounting the word order in the primitive language of mankind (and hence in the Basque language) founded in three types of «nobleness», and in the principle that the noblest element precedes the less noble one. The first type (*nobleza de origen*) orders words according to their meaning. The second type (*nobleza de ministerio*) orders words according to the part of speech they belong to, or the semantic function they have. Finally, the third type (*nobleza de mérito* or *de movilidad*) considers the will for communication and, as a result, word order reflects the information structure. Moreover Astarloa's three types of nobleness are arranged in a hierarchy of superiority: *movilidad* > *ministerio* > *origen*. So Astarloa's syntax appears near to sensualists' conceptions on word order because it did not appeal for a fixed natural order of words; instead he proposed a variable word order based mainly on the communicative process.

1. Sarrera¹

Komunikazio honen helburua Pablo Pedro Astarloaren ideia sintaktikoak aurkeztea eta beraien testuinguru historiko eta linguistikoa kokatzea

¹ Lan hau MEC-ek lagundutako eta Joseba A. Lakarrak zuzendutako «Fundamentos para unos *Monumenta Linguae Vasconum*: historia, crítica y edición de textos (II)» (HUM2005-08047) ikerketa-proiektuaren barruan sartzen da. Eskerrak eman nahi dizkiot Beñat Oyharçabali, testu honen zirriborroari egindako zuzenketa eta iruzkinengatik. Gelditu diren huts guztiak neuri dagozkit.

da. Horretarako, Astarloak *Diskurtso filosofikoetan* (1883 [1805]) sintaxiari eskaini zizkion bi atalak izan ditut aztergai. Lehenengo atalean Astarloak (1883: 498-527) gizakien lehen hizkuntzaren sintaxia nolakoa izan zen aztertzen du; bigarrenean (1883: 754-773), euskararen sintaxia azaltzen du, lehenengo hizkuntzari guztiz dagokiola erakusteko asmoz.

Oroit bedi *Diskurtso filosofikoen* helburua gizakien lehenengo hizkuntza bakarra eta perfektua izan zela frogatzea dela, baita hizkuntza hura euskara izan zela ere. Horretarako, filosofo sentsualista zenbaiten bideari jarraituz, Astarloak pentsatzen zuen gizakien jatorrizko hizkuntzak naturaren aginduei jarraitzen ziela. Hala, lehen hizkuntzaren gramatika eta euskararen gramatika xeheki aurkeztu eta erkatu zituen, bat bera zirela eta, ondorioz, euskarak naturaren aginduei jarraitzen ziela erakusteko asmoz; horrela, euskara lehen hizkuntza izan zela frogatu nahi zuen (ik. Gómez 2002, 2004, 2007).

Sintaxiaren arloan ere argudiabide mota horri jarraitzen dio eta, ikusiko dugunez, Astarloaren sintaxia bete-betean txertatzen da XVII-XVIII. mendeetan hitzen ordena naturalari buruz izandako eztabaidetan (ik. Ricken 1978, Delesalle 1986). Hortaz, hasteko, eztabaida horien nondik norako nagusiak zirriborratuko ditut, aipatu lanetan oinarrituz (§ 2); ondoren, Astarloaren sintaxiari buruzko ideiak aurkeztuko ditut (§ 3) eta, azkenik, ondorio batzuk adieraziz eta egiteko batzuk proposatuz emango diot amaiera komunikazioari (§ 4).

2. Hitz ordena naturalari buruzko eztabaidak

Hitz ordena naturalari buruzko gogoetak aspaldikoak dira eta honezkero Antzin Aroko gramatikari, filosofo eta erretorikoen lanetan aurki daitezke. Ordukoak dira, esaterako, *rectus ordo* edo *ordo naturalis / ordo artificialis* bereizketa, Kintilianok eta Zizeronek erabilia, besteak beste.

Nolanahi ere den, ordena naturalari buruzko eztabaidak berebiziko garrantzia hartu zuen Frantzia XVI. mendetik aurrera. Bereziki, irizpide logiko eta arrazionalistak erabili ziren hitz ordena naturala SVO dela defendatzeko; horrela, bide batez, hitz ordena naturala frantsesaren apologia egiteko ere erabili zen. Arrazionalisten ustez, hitz ordena naturala finkoa da (SVO, frantsesarena) eta, gainera, pentsamenduek arrazoian duten segida logikoa islatuko luke. Oroit bedi Descartesen arabera gizakien arrazoiaren berezkoa eta gizaki guztien gan berbera dela eta, ondorioz, ideien hurrenkera logikoa ez dela aldatzen.

Hitz ordena natural finkoaren kontrako lehenengo kritikak kartesianismoaren barruan sortu ziren (Cordemoy, Lamy), irudimenaren rola inguruko eztabaiden barruan alegia. Hala, irudimenaren pisuaren aldeko autore batzuek ez zuten hitzen ordena arrazoiaren agindu estuekin lotu, irudimenaren beharrekin eta pasioak adierazteko beharrekina baizik. Honek bide irekia utzi zuen hitz hurrenkera askeagoak onartzeko. Adibidez, 1701ean Bernard Lamyk proposatu zuen pentsamenduan ideia guztiak batera daudela, irudi (*tableau*) baten moduan, hurrenkerarik gabe; aldiz, hitz egitean ideiak

segida batean kokatu behar dira, baina horretarako ez dago alde zuretik pentsamenduak markatutako ordena finkorik.

XVIII. mendean, hitz ordena naturalaren gaia gramatikari-filosofo arrazionalisten eta sentzialisten arteko eztabaidetan sartu zen. Hartara, hitz ordena natural finkoaren kontrako hurrengo eraso sentzialisten lanean aurkitzen dugu, sentzialistek ohikoa zuten ikuspegi historikoa baliatuz heldu baitzioten hitz ordenaren arazoari. Condillac sentzialisten maisuaren iritziz, ez dago kategorien hierarkia unibertsalik eta pentsamendua ez dago hizkuntzatik kanpo ordenatuta; aitzitik, Lamyk uste zuen bezala, pentsamendua irudi (*tableau*) baten moduan antolatuta dago, non osagai guztiak aldi berean agertzen diren. Condillacen ustez, hizkuntzak zeregin bikoitza du: batetik, pentsamendua aztertzeke tresna izatea eta, bestetik, gizakien arteko komunikazio tresna izatea. Horregatik, hitzak ordenatzeko bi oinarri nagusi proposatzen ditu: barneko oinarria ideien lotura da (*liaison des idées*) eta kanpoko oinarria hitzunik duten komunikatzeko beharra edo interesa. Condillacen uste zuen hitz ordena naturala prozesu batean sartzen dela:

1. Hasiera batean, hitz ordena naturala keinuen ordeztatik hitzak erabili ahala eratu zen eta OVS hurrenkera izan zuen —ohar bedi, arrazionalisten alderantzizkoa—.
2. Denbora aurrera joan ahala, hitz ordena berriak agertu ziren. Condillacen ustez, hauek ere naturalak dira; izan ere, ordena «naturala» ideiak argi lotzen dituen da, dela ideiak elkarren ondoan kokatuz —frantsesak bezala—, dela flexioaren bitartez lotuz —latinak egiten duen moduan—. Haatik, frantsesaren ordena finkoa ez da naturalagoa; izatekotan, latinaren jokabidea litzateke naturalagoa, frantsesak murriztapen handiagoak dituelako hitzak ordenatzeko, deklinabiderik ez baitu.
3. Azkenik, ordena naturalaren aldaketak (*constructions renversées, inversions*) gerta daitezke. Aldaketa hauek baliagarriak lirateke diskurtso biziago eta adierazgarriagoa lortzeko. Condillacen dioenez, hitzunik objektua ikusteko eta sentitzeko moduek pentsamenduak alda ditzakete eta, ondorioz, hitzen ordena ere bai. Gainera, ordena-aldaketak egokiagoak izango lirateke pentsamenduaren irudia, ideien aldirerokotasuna, aditzera emateko.

Laburbilduz, arrazionalisten berezko ideia aldaezinei kontrajarrita, Condillacen giza hizkuntza errealitatean eta aldakortasunean kokatu zuen, historian alegia. Aldi berean, frantsesa hitz ordenari buruzko eztabaiden erdigunetik kentzen ahalegindu zen.

Batteaux-ek, hitzen ordena naturalaren teoria arrazionalista ezeztatu nahirik, ikuspegi sentzialista muturreraino eramane zuen. Haren ustez, latinak betetzen du hitz ordena naturala; frantsesean, ordea, hitz ordena naturalaren aldaketak (*inversions*) dira nagusi.

Arrazionalisten erantzuna laster heldu zen. Ikus ditzagun, esaterako, entziklopedistek hitz ordena naturalaren auziari buruz adierazi zituztenak. Lehenik eta behin, Du Marsais-ek hiru hitz ordena mota bereizi zituen:

1. Eraikuntza naturala (*construction naturelle*):² hurrenkera hau beharrezkoa, oinarritzkoa eta hizkuntza guztietan berdina da. Pentsamenduaren hurrenkera islatzen du eta, jakina, SVO da.
2. Irudizko eraikuntza (*construction figurée*): beharrezkotik eratorria da; irudizko hitz ordena zehazten da objektuek irudimenean eta pasioetan hartzen duten hurrenkeraren arabera. Irudizko eraikuntzan flexioaren eginkizuna hitzek ordena naturalean izan beharko luketen lekua markatzea da.
3. Ohiko eraikuntza (*construction usuelle*): aurreko bien nahasketa da; eraikuntza honen bitartez, Du Marsais-ek frantsesean ere gertatzen diren ordena naturalaren aldaketak jaso nahi ditu.

Nicolas Beauzée jarrera arrazionalistaren defendatzaile sutsua dugu. Baiezatu zuen hitz ordena naturala aldaezina dela eta gizakien berezko ideietan dagoela, arrazoi aldaezinaren isla baita. Hitz ordena natural horri *ordre analytique* deitu zion eta, jakina, hark ere SVO dela uste zuen; berezko arrazoi aldaezinaren adierazpena baita, ordena analitikoa gramatika orokorrari legokioke. Beauzée-ek berriz hartu zuen Du Marsais-ek flexioaren eginkizunari buruz azaldu zuen ideia, gramatikaren eta erretorikaren arteko bereizketan txertatuz. Bestalde, Condillacen *liaison des idées* oinarria ere onartzen du, baina eskatzen du hartatik eratortzen den hurrenkera ideien segida logikoari jarraitzea, naturala izango bada.

Azkenik, Rivarol-ek ordena zuzena (*ordre direct*) eta sentsazioen ordena (*ordre des sensations*) bereizi zituen. Haren aburuz, ordena zuzenak logika naturala adierazten du. Condillacen kontra, Rivarolen ustez irudimenak, pasioek eta sentsazioek gobernatutako hitz ordena ezin da argitasunarekin eta arrazoiarekin adostu. Rivarolen lana (1784) frantsesaren apologia ezaguna da eta, besteak beste, Garat filosofo ideologo euskaldunaren erantzuna izan zuen, Condillacen argudioak aldeztuko.

3. Astarloaren sintaxia

Astarloaren lan nagusietan, bai *Apologían* (1803: 168-187) eta baita *Diskurtso filosofikoetan* ere (1883: 498-527, 754-773), sintaxiari buruzko atalek hitzen ordena dute aztergai, eraikuntza edo *constructio* izenekoa alegia.³ Atal

² *Nécessaire, simple, significative* eta *énonciative* deiturak ere erabiltzen ditu.

³ Astarloaren sintaxiaz egin den azterketa bakarra Hildagoren doktorego tesian dago (2005: [118]-[128]). Bestalde, Astarloaren aurreko euskal gramatika-lanetan hitz ordenaren arazoez oso leku urria betetzen dute. Lehenengo gramatika-lan hauetako ohar bakanak gehie-

horietan, beraz, Astarloak ez die garrantzi berezirik ematen orduko sintaxi-lanen barruan sartu ohi ziren gainerako bi alderdiei, komunztadurari (*concordatio*) eta gobernuari (*rectio*). Hasiera-hasieratik, sintaxiaren definiziotik, mugatzen du Astarloak bere aztergaia:

Sintáxis es una voz griega que equivale á la castellana *construcción*, y por ella entienden los gramáticos aquel órden, arreglo ó colocación que han de tener las palabras en la oración para que de ellas resulte el debido concepto. (Astarloa 1883: 498)⁴

Egia da euskarari buruzko atalean Astarloak sintaxiaren definizio zehatzago eta zabalagoa ematen duela eta hor ere hurrenkera beste irizpiderik ez duela aintzat hartzen; zernahi gisaz, Astarloaren ustez, edozein motatako osagaien hurrenkera sartzan da sintaxiaren esparruan, ez hitzen hurrenkera soilik:

Es verdad que los gramáticos ordinariamente con la voz sintáxis solo entienden aquel órden, método ó colocacion con que se ordenan las voces en nuestros conceptos; pero si queremos filosofar con acierto acerca de este alma de los idiomas, hemos de tomarla en una acepción más extendida. En efecto, la union de letras con letras para formar sílabas, de sílabas con sílabas para formar voces, y de voces con voces para presentar conceptos explícitos es la verdadera sintáxis. (1883: 754).

Hasieratik ere Astarloak hitzen ordena naturalaren teoria arrazionalista gogor kritikatzan du:

los filósofos, desengañados de que debía haber ciertas reglas prescritas por naturaleza para el órden que habían de tener las voces en nuestros conceptos, empezaron á discutir sobre el particular, pero con la misma desgracia de no haber llegado á lograr el deseado fin. Es verdad que sostuvieron y sostienen como regla única que las voces se han de presentar en los conceptos en el mismo órden con que se presentan sus ideas en el entendimiento.

Esta regla, tan recibida hoy entre los literatos, es oscura, es confusa, es indeterminada, y aun decimos sin temor que es falsa. (1883: 499)

netan sintagmen barruko hurrenkeraz arduratu ziren —Oihenart, Pouvreau, Urte, Larramendi, Harriet eta Añibarro— eta askoz gutxiagotan perpausaren osagaien arteko hurrenkeraz —Urte, Larramendi, Harriet eta Añibarro— (cf. Hidalgo 2005: [31]-[80], [171]-[172] eta Perez 2006).

⁴ Definizio hau Beauzéeek *Entziklopedian* (Diderot & d'Alembert 1751-1772) eman zuten antzekoa da (s.v. *grammaire*): «L'office de la Syntaxe est d'expliquer tout ce qui concerne le concours des mots réunis, pour exprimer une pensée»; alabaina, Beauzéeek sintaxiaren hiru ardatzak hartu zituen kontuan (*ibid.*): «mais toutes ses règles [*sic*], dans quelque langue que ce soit, se rapportent à trois chefs généraux, qui sont la *Concordance*, le *Régime*, & la *Construction*». Garai hartan —eta geroago ere bai!— aski ohikoa zen sintaxia eta eraikuntza nahastea, etimologiatik beretik abiatuta. Du Marsaisek bien arteko bereizketa argi ezarri zuen arren (cf. Chevalier 1968: 689-694), Astarloaren pasarteak adierazten digu XIX. mende hasieran nahasketa oraindik bizirik zegoela.

Teoria arrazionalistan adimenak (*entendimiento*) duen garrantziari Astarloak komunikazio-prozesuan borondateak duen zeregina kontrajartzen dio:

Es visto, pues, que se puede falsificar la regla tan decantada de que las ideas se han de comunicar en el habla segun el orden con que se presentaron en el entendimiento y por lo mismo debe ser sustituida por la de que han de ser presentadas las ideas en la comunicaci3n social segun el orden que tuvieron en movilizar la voluntad. (1883: 500)

Izan ere, Astarloak proposatzen duen komunikazio-prosezuak honako urrats hauek ditu:

1. Zentzumenek jasotako ideiak oroimenean gordetzen dira.
2. Adimenak ideiak aztertzen eta epaitzen ditu, ordena «numeralaren» arabera.
3. Borondateak ideiak onartzen ditu.
4. Adimenak komunikazioaren erabilgarritasuna eta ontasuna epaitzen ditu.
5. Borondateak ideiak komunikatzen ditu, baina zeregin honetan ez dio adimenak ezarritako ordenari jarraitu behar.

Prozesu osoa deskribatzen duen pasartea aski luzea bada ere, nago hona aldatzea merezi duela, Astarloaren argudiabidea hobeto ezagutze aldera:

Las ideas se comunican por los sentidos al alma, y esta las retiene en la reminiscencia.

Este es el primer paso que damos acerca de las ideas. Depositadas estas en la memoria 3 reminiscencia, 3 las examina el entendimiento, 3 no las examina: si las examina juzga de ellas; pero no determina comunicarlas por no ser de su instituto: ad3ptalas la voluntad no por el 3rden en que fueron examinadas, pues es libre en querer 3 no querer, sino conforme quiso inclinarse 3 ellas. Deposit3ronse en la memoria 3 reminiscencia veinte ideas, por ejemplo: exam3nalas el entendimiento una por una segun su 3rden numeral, y juzga que son buenas y 3tiles. 3Es suficiente este juicio para comunicarlas? De ninguna de las maneras. Es necesario el que anteriormente las acepte la voluntad, pero aun en este caso no es precisa la comunicacion. Una cosa es querer la cosa, y otra quererla comunicar: muchas cosas queremos no queriendo que se comuniquen; es preciso, pues, que haya otro juicio del entendimiento 3 m3s de aquel en que juzg3 de la bondad de las ideas: un juicio de la utilidad 3 de la bondad de la comunicacion, y este juicio segundo puede dar el entendimiento sin que guarde el 3rden que sigui3 en los juicios anteriores; pero ni este juicio segundo es suficiente para que se comuniquen las ideas. Es necesario 3 m3s el acto de la voluntad; y este, libre en sus operaciones,⁵ puede desordenar los juicios del entendimiento y comunicar las ideas, haciendo, por ejemplo, en la comunicacion que las primeras que se presentaron al entendimiento sean segundas y las segundas primeras. (1883: 499-500)

⁵ Liburuko *eperaciones* zuzendu dut.

Astarloak dioenez, hitzen ordena naturala zein den jakiteko, hitzen nobleziari begiratu behar zaio. Honelaxe definitzen du Astarloak «noblezia»:

Por nobleza se entiende vulgarmente aquella estimacion que merece la cosa en el concepto de los hombres [...]. Toda grandeza, todo honor, toda elevacion, toda nobleza, ha de provenir al ente del mérito que le haga amable, apreciable y digno de la estimacion de los hombres. (Astarloa 1883: 502)

Astarloak hitz ordena eta hitz ordenaren aldaketak azaltzeko hiru noblezia mota bereizten ditu: *nobleza de origen*, *nobleza de ministerio* eta *nobleza de mérito* (edo *nobleza de movilidad*).⁶ Sintaxiari dagokionez, bestalde, hitzen hurrenkera bakoitzean osagai nobleenak lehenik agertu behar du eta noblezia gutxiagokoak hurrenik. Era berean, Astarloak hiru noblezien arteko hierarkia bat ezarri zuen (1883: 506-507): *merituzkoa* > *eginkizunezkoa* > *jatorrizkoa*:

De todo lo dicho se infiere que la primera y más excelente nobleza en las voces es la de mérito ó movilidad: la segunda la de ministerio y la tercera y última la de origen. (1883: 507)

Igualmente se han de tener presentes los grados de estas noblezas; este es, que la nobleza de mérito ó movilidad es la superior de las tres, y que por consiguiente las voces que gozan de esta nobleza han de ser colocadas en nuestros conceptos con antelacion á las demás: que despues de esta nobleza sigue la de ministerio; y que la última de todas, ó la ínfima de las noblezas es la de origen. (1883: 755)

3.1. *Jatorrizko noblezia*

Jatorrizko noblezia hitzen esanahietan datza eta naturak ematen du, esanahiak adierazteko egokitasunaren arabera. Gogoratu, Astarloaren arabera, lehen hizkuntzak naturaren araei jarraitzen ziela, eta horretarako hiru hartsarre bete behar zituela: egokitasuna, ekonomia eta eufonia (cf. Gómez 2004, 2007). Hala ere, hitzak hurrenkeran jartzeko ez zaio eufoniarri begiratu behar, ezta ekonomiari ere; bai, ordea, hitzen egokitasunari, esanahiari alegia (Astarloa 1883: 502):

La nobleza de origen en las voces, es aquella que recibieron en su formacion no por la eufonía de la sintaxis ó colocacion que en ellas se hizo de las letras y sílabas, ni por la economía con que fueron formadas, sino por el destino que tomaron para significar y representar los correspondientes signados. (1883: 504)

⁶ Naturan aurkitzen diren noblezien sailkapen posible bakarra, Astarloak dioskunez (1883: 504): «Hé aquí todas las noblezas que presenta naturaleza á nuestra consideracion reducidas á tres clases, es á saber: *nobleza de origen*: *nobleza de ministerio*: *nobleza de mérito*, y en vano nos esforzaríamos en querer dar á la nobleza natural otra diferente clasificacion». *Apologian* (1803: 171-187) Astarloak *orden natural*, *orden ministerial* eta *orden de movilidad* deiturak erabiltzen ditu.

Noblezia honen arabera, adibidez, *aita* nobleagoa da *semea* baino eta, ondorioz, hurrenkera zuzena *aita eta semea* litzateke, eta ez **semea eta aita* (1883: 755). Orobat *gau eta egun*, eta ez **egun eta gau*: «Deleita el oir *gau ta egun*, noche y día; pero no se puede sufrir la expresion *egun ta gau*, día y noche» (1883: 756).

3.2. Eginkizunezko noblezia

Eginkizunezko noblezia hitzen «funtzioek» ematen dute:

La nobleza de ministerio en las voces no es otra cosa que aquella estimación que adquieren en las funciones á que son destinadas respecto del habla. Estas funciones son aquellas que ejercen en los conceptos y provienen ya de la clase á que pertenecen, ya por el estado en que nos representan á sus respectivos signados. (Astarloa 1883: 505)

Azken esaldian aurreratzen duenez, Astarloak «funtzio» deituraren barruan⁷ bi adiera biltzen ditu: alde batetik, perpausaren atalak, hitz klaseak edo kategoria gramatikalak deitu ohi direnak —izena, adjektiboa, aditza, etab.—⁸ eta, beste alde batetik, nolabait erlazio tematikoak edo, gramatika sortzailean, theta-rolak izendatzen direnak —Astarloaren «lehen mailako erlazioak», alegia: egilea, jasailea, hartzailea eta jabea (cf. Gómez 2002)—. Euskararen sintaxiari eskainitako atalean azalpen argiagoa ematen du:

El ministerio de las voces es de dos maneras como hicimos ver en nuestra gramática; y proviene, ya de sus signados, ya de las funciones que como representantes de ellos ejercen en los conceptos. El primero de estos ministerios lo recibieron en su origen, esto es, en el mismo tiempo en que fueron formadas, destinándolas desde entónces para que fuesen nombres, pronombres, artículos, verbos; en una palabra, para que fuesen lo que llamamos *partes de la oracion*, y este ministerio es constitucional. El segundo ministerio proviene de las *funciones* que ejercen en los conceptos, y esta funcion es accesoria. El nombre, por ejemplo, puede ser agente, paciente, poseedor, etc., y hé aquí la segunda clase del ministerio de las palabras. (Astarloa 1883: 756-757; etzanak nireak dira [RG])

Noblezia mota honen arabera zilegi diren eta ez diren hurrenkerak antolatzeko aldera, Astarloak oinarritzko irizpide bat erabiltzen du: oro har, subjektua atributuaren aurretik kokatu behar da; inoiz ez atributua subjektua baino lehen:

No hay duda: el atributo es un accidente que necesariamente pide para su existencia un supuesto, esto es, un sujeto, ó para decirlo todo en

⁷ «Funtzio» berbak frantses eta espainiar hizkuntzalaritza tradizioetan izan zituen lehenengo agerraldiez, ik., esaterako, Martí Sánchez (1994: 22).

⁸ Hídalgo (2005: [121]) ohartarazten duenez, Astarloak *Apologían* jatorrizko nobleziaren barruan sartzen ditu perpausaren atalen hurrenkera kontuak (Astarloa 1803: 171-174).

una palabra, es un dependiente del nombre, y este al contrario, es como un Señor, ó un bienhechor, de quien depende la existencia del atributo, y como tal superior en nobleza á todo atributo [...] de modo que *ántes se ha de conocer el sujeto que sus atributos, y aquel ha de preceder por naturaleza á estos*. (1883: 510; etzana nirea da [RG]).

Perpausaren atalei bagagozkie, Astarloak subjektu eta atribuetan sailkatzen ditu. Eta subjektu bakarrak izenak eta izenordainak dira:

El nombre es la parte más noble del habla: es el sujeto en quien recaen como atributos todas las demás del concepto, á excepcion de las conjunciones é interjecciones que por sus ministerios deben reputarse como voces sueltas y separadas de los conceptos. (1883: 757)

Al pronombre ha de mirar el filósofo como á un lugar-teniente del nombre, y [...] podemos reputarlos en el cotejo que nos vá á ocupar como unos verdaderos nombres, pues les vemos ejercer el personaje de estos en todos los idiomas. (*ibid.*)

Aldiz, atributuak gainerako guztiak ditugu: adjektiboak (*epitetos*), kasu-markak (*artículos*), preposizio edo postposizioak, partikulak (leku-denborazko atzizkiak, *-ago*, *-en*, *-(t)ar*),⁹ adberbioak eta aditzak (1883: 758-764).¹⁰ Sailkapen bikoitz honetatik kanpo geratuko lirateke juntagailuak eta interjekzioak: juntagailuek hitzak edo kontzeptuak lotzen dituzte eta, ondorioz, haien artean kokatu behar dira; interjekzioak, pasioek eragindako hitzak baitira, kontzeptu guztien aurretik kokatu behar dira (1883: 764).

Gramatika orokorraren barruan, gramatikagintza greko-latindarretik zetozen perpausaren atalak (eskuarki zortzi) irizpide arrazionalisten arabera sailka-

⁹ Euskaraz partikula guztiak postpositiboak dira, aditzaren flexioan sartzen diren batzuk izan ezik. Astarloak ematen duen arrazoia hauxe da: aditzaren inguruan partikula asko agertzen direnez, ezinezkoa da guztiak erroaren ondoren kokatzea, eta horregatik partikula batzuek erroaren aurrean edo tartean agertu behar dute (1883: 763).

¹⁰ Bidenabar, Astarloak ematen duen aditzaren definizioan Port-Royaleko lanen tradizioko gramatika orokorraren zantzuak aurki ditzakegu, aditzaren barruan atributua eta perpausaren kopula edo lotura ikusten baititu: «Los verbos todos ellos incluyen un atributo y forman dos partes en los juicios, esto es, embeben en sí el atributo del sujeto y la union de este con aquel» (1883: 514). Hala ere, pasarte honetatik kanpo, *Diskurtso filosofikoetan ez dugu aurkitzen gramatika orokorrean halako definizioekin lotuta egon ohi den aditz bakarraren teoriaren aldeko baieztapen gehiagorik eta, areago dena, beste toki batean Astarloa espresuki aditz bakarraren teoriaren kontra agertzen bide da: «Es verdad que los filósofos, especialmente modernos, quieren que no hubiese verbos inflexionados en el mundo primitivo, fundándose en que un verbo en inflexion no es otra cosa que un participio con el *sum es fui*, esto es, un participio que es el atributo, y el *sum es fui* ó el verbo *ser* que une á dicho atributo con el sujeto. Dicen que la expresion *los hombres aman* es lo mismo que *los hombres son amantes: los hombres amaban* equivale á *los hombres eran amantes: los hombres amaron* vale lo mismo que *los hombres fueron amantes*. Acerca del modo con que hubo de inflexionar sus verbos el idioma primitivo, hablaremos en su lugar y allí rebatiremos esta opinion en la parte que nos pareciese opuesta á la filosofía» (1883: 433; cf. Gómez 2006).*

tzeko ahaleginak izan ziren.¹¹ Abiapuntua Port-Royaleko gramatikan aurkitzen dugu (Arnauld & Lancelot 1660: 29-30), bertan bereizten baitira pentsamenduen objektuak adierazten dituzten hitzak —izenak, artikulua, izenordainak, partizipioak, preposizioak eta adberbioak— eta pentsamenduen formak eta moduak adierazten dituzten hitzak —aditzak, juntagailuak eta interjekzioak—.

Ingalaterrako tradizioan Harrisek (1751: 26-36) berezko esanahia duten hitzak (*significant by themselves*) eta erlaziozko esanahia duten hitzak (*significant by relation*) bereizi zituen. Lehenengo taldekoak substantiboak —izenak— edo atributiboak —aditzak— izan daitezke; bigarren taldekoak, aldiz, mugatzaileak (*definitives*) —artikulua— edo konektiboak (*connectives*) —juntagailuak—. Orobatsu, Hugh Blair-ek (1787: 175) substantiboak, atributiboak eta konektiboak bereizi zituen. Eta haren eraginez, Espainian Cristobal y Jaramillok (1800), hitzek perpausean duten zereginaren arabera, *substantivos*, *atributivos* eta *conjuntivos* atalak sailkatu zituen (cf. García Folgado 2004).¹²

Beste alde batetik, Astarloaren [subjektua-atributua] hurrenkera aise lotu daiteke Du Marsaisen ustez ordena naturala den [determinatua-determinatzailea] hurrenkerarekin; izan ere, Du Marsaisek ematen dituen adibideetan [izena-adjektiboa] edo [subjektua-predikatua] bezalako segidak daude (cf. Graffi 1998: 265-266).

Astarloak ezarritako sailkapenaren eta irizpidearen ondorioz, eginkizunezko nobleziak onartzen duen perpausaren atalen ordena hauxe da: [izena-adjektiboa-artikulua-kasua/postposizioa]; ez, ordea, *[preposizioa/kasua-artikulua-adjektiboa-izena]:

De todo lo dicho acerca de la nobleza de ministerio, se colije que el órden de las voces como partes de la oracion es el siguiente. Primeramente se ha de colocar el nombre, despues el epiteto [...]. Al nombre y epiteto se ha de posponer la nota de apelativo [...]. Al nombre, el epiteto y á la nota de apelativo ha de seguir el articulo [...]. Al nombre, al epiteto y nota de apelativo, han de posponerse las preposiciones ó posposiciones. (Astarloa 1883: 518)¹³

Oroit bedi Astarloak mugatzaileari *nota de apelativo* deritzola eta kasu-marka gramatikalei, berriz, *artículo* (cf. Gómez 2001, 2007).

¹¹ Perpausaren atalen bestelako sailkapen zaharrak izan ziren, hala nola Aristotelesen eta estoikoen *ónoma* (izena edo subjektua), *rhēma* (aditza edo predikatua), *súndesmos* (juntagailuak) eta *árthron* (artikulua), edo hebreeraren gramatika-tradizioko izenak, aditzak eta partikulak edo *dictiones* (cf. García-Jalón 1999).

¹² Astarloaren ondoren egile gehiagok erabili zuten hauen antzeko sailkapen bat, baina horien zertzeladak hemen emateak luzeegi joko luke eta komunikazioaren mugetatik kanpo geratuko litzateke; cf. hala ere García Folgado (2004: 1160-1161, eta bertan aipatzen diren erreferentziak) eta García Folgado (2008).

¹³ Cf. orobat: «Aunque el epiteto y el artículo son atributos del nombre, sin embargo, el artículo se ha de posponer al epiteto, porque es un atributo ménos noble en el órden ministerial» (Astarloa 1883: 759). Gauza bera adierazten du geroago postposizioei buruz (1883: 761); bestalde, artikulua postposizioaren aurretik kokatu behar da, artikuluek lehen mailako erlazioak adierazten dituztelako eta postposizioek, aldiz, bigarren mailako erlazioak (*ibid.*).

Gainera, [adberbioa-aditza] hurrenkeran euskarak salbuespenik ez duela adierazten du: «Este idioma siempre antepone los adverbios al verbo» (Astarloa 1883: 763). Hala ere, ordenatze hori ez dagokio eginkizunezko nobleziari, bi hitz klaseak berdinak baitira, baizik eta jatorrizko nobleziari; noblezia honen arabera, adberbioak aditzak baino lehenagokoak dira (1883: 513-514). Azkenik, Astarloak ohartarazten du aditzak perpausaren amaieran agertu behar duela: «esta parte de la oracion como tal ha de ser la última de todas» (1883: 514).

Funtzioei dagokienez, bestalde, [jabea-jabetua] ordena da zilegizkoa, hala genitibodun egituretan nola hitz eraketan (1883: 515-516):

La más noble funcion de las voces en nuestros conceptos es la de poseedor. Cualquier parte de la oracion que la ejerza se ha de anteponer á la voz que representa la cosa poseida, sea esta agente, recipiente ó paciente. (1883: 764)

Orobat, [egilea-hartzailea-jasailea] hurrenkera behar dugu: «El ministro de los recipientes sigue al de los agentes, y ha de anteponerse á los pacientes» (1883: 517). Baieztapen honen bermetzat izenordain klitikoek kokapena hartzen du:

Todos los idiomas nos dan un claro testimonio de esta verdad, cuando hacen uso de los pronombres como recipientes en tanto grado, que es disonante la colocacion de estos recipientes despues de las personas pacientes. Se oye bien *dame los libros*, pero disgusta si se dice *da los libros á mi: doite las gracias*, es sintaxis agradable: *doi las gracias á ti*, disgusta al oido español, y lo mismo sucede en los demás idiomas; de modo que no podemos dudar razonablemente que la funcion de recipiente es superior á la de paciente, y esta la más ínfima de todas las que ejercen las voces en nuestros conceptos. (1883: 518)

Bestalde, aditza egilearen eta hartzailearen artean kokatu behar da eta, azkenik, jasailea; beraz, Astarloaren ustez, hitz ordena naturala, eginkizunezko noblezia honen arabera, SVO litzateke, [egilea-aditza-hartzailea-jasailea] alegia:

Los recipientes ó aquellas voces que ejercen en nuestros conceptos las funciones del dativo latino han de colocarse despues de los agentes y sus atributos, y aun despues de los verbos; porque el órden natural exige que obre el agente antes que pueda recibir el recipiente el efecto de la accion. Antes es el comprar la cosa que el recibir Pedro la cosa comprada [...]. Los recipientes, aunque deban posponerse á los agentes y sus atributos y al verbo, deben tambien anteponerse á los pacientes. No puedo dar la manzana a Pedro, por ejemplo, hasta que Pedro reciba esta manzana: y el recipiente ha de presentarse, y verificar la recepcion antes que yo termine la accion; y siendo los pacientes el término de las acciones, han de ser posteriores en órden á todas las demas voces que concurren á la formacion de nuestros conceptos. (1883: 765-766)

Astarloak ohartarazten du hizkuntza askotan, baita euskaran ere, maiz aldatzen dela [hartzailea-jasailea] hurrenkera eta [jasailea-hartzailea] ere auki

dezakegula; hala ere, jatorrizko sintaxiaren froga bat eskaintzen du: adizki jokatueta hartzailearen hizkia erroaren ondo-ondoan agertzen da:¹⁴

La legítima prueba de ser esta [aditza-hartzailea] la sintáxis primitiva de nuestro idioma, la tenemos en los afijos ó características personales de nuestras conjugaciones recipientes. En ellos habrán observado los literatos que las características de recipientes se hallan colocadas inmediatamente despues de la radical del auxiliar, y esto tan constantemente que no habrán advertido cosa al contrario en el análisis que hicimos de nuestras 203 conjugaciones. (1883: 766)

3.3. *Merituzko noblezia edo mugikortasunezko noblezia*

Noblezia honek hitzek komunikazioan duten indarra neurtzen du:

La nobleza de mérito ó movilidad de las voces, como anteriormente queda dicho, consiste en aquel mayor ó menor impulso que tienen sus signados en movilizar los conceptos, esto es, en dar motivo á ellos. Para que nos hagamos cargo cómo se debe usar de esta nobleza, hemos de tener presente que nuestros juicios, para que sean comunicados, han de ser reconocidos por el entendimiento, juzgados por él como útiles y dignos de ser trasmitidos á la sociedad, y últimamente adoptados por la voluntad como comunicables. (Astarloa 1883: 520)

Eta, hain zuzen ere, mugikortasunezko nobleziaz denaz bezainbatean, borondateak agintzen du:

Es necesario que sea movilizada la voluntad para que se realice la comunicacion, y esta movilidad de la voluntad ha de ser el compás con que hemos de medir la superioridad de la nobleza de mérito, que unas voces tienen sobre otras. (1883: 520)

Honen arabera, indar handiena duen osagaia, komunikatzeko borondatea mugiarazi duen osagaia, aurreneko lekuan agertzen da, edozein kategoriatakoa izanik ere:

de modo que naturalmente somos arrastrados á colocar como primeros aquellos conceptos que nos han hecho más impresion por algun atributo suyo, ó por el juicio que hemos hecho de su mayor utilidad ó necesidad de ser comunicado. (1883: 521)

De esta primera instruccion se deduce que la primera voz de nuestros conceptos ha de ser la que fuese móvil de ellos con una movilidad primeriza, esto es, que diese causa ó motivo á la comunicacion [...]. Lo que se quiere decir es que toda voz, sea nombre, verbo, participio, adverbio, etc., ha de ser la primera en nuestros conceptos siempre que haya sido la causa ó motivo para la comunicaci3n. (1883: 524)

¹⁴ Givonen (1971) harako «today's morphology is yesterday's syntax» haren aitzindari ote?

Horrenbestez, merituzko noblezia honek informazio egitura edo mintzagai egitura hartzen du kontuan hitzak ordenatzerakoan.¹⁵ Astarloaren aurreko sintaxilari askok hitzen ordena-aldaketa hau hiperbaton figura erretorikoaren bitartez azaldu izan zuten, ordena naturaletik kanpo utziz. Alabaina, Astarloaren iritiz, hitzen ordenamendu guztiz naturala da:

Han creido estos sábios contraria á la naturaleza esta sintáxis; pero en realidad es una locucion legítima: una locucion arreglada y muy conforme al dictámen de la naturaleza en todas sus producciones (1883: 766).

Horregatik, lehenago aipatutako SVO ordena «naturala» askotan aldatzen da, horretarako beharrik badago:

Exige el órden natural que en primer lugar demos á entender el sujeto de nuestros conceptos, y despues los atributos suyos, como son cualidades y relaciones: después las acciones de este sujeto cualificado, y últimamente el término de su accion. Sin embargo, trastornamos este órden natural siempre que la necesidad ó utilidad nos impele á ello (1883: 767).

Astarloak hizkuntza guztietan aurkitzen du nolabaiteko ordena-aldaketa bat, hitzen mugikortasunezko nobleziak eraginda. Baina euskarak gainerako hizkuntzek baino egokiago erabiltzen du mugikortasunezko noblezia:

Todos los idiomas, como queda dicho, hacen uso de esta trastornada pero natural sintáxis [...]. Sin embargo, reparo que la nobleza de movilidad es manejada por el bascuence con más finura que los otros idiomas. (1883: 768)

Beste alde batetik, Astarloak ez du uste esaldiaren hasierara osagai bat bakarrik mugitzen denik, beharbada egungo mintzagaiarekin lotu genezakeena; aitzitik, euskaran mugikortasunezko nobleziak esaldiaren osagai guzti-guztiak antolatzen dituela diosku, komunikazioa sortzeko izan duten parte hartzearen arabera:

Este idioma en sus conceptos enérgicos coloca las voces con aquel órden y antelacion que exige la mayor ó menor movilidad de ellas. La primera de ellas es aquella que entusiasmandonos más que todas nos obligó á la comunicacion: la segunda la que fué causa inmediata de esta movilidad: la tercera aquella que dispuso ó hizo que la voz segunda fuese causa de la movilidad de la primera, y así sucesivamente segun el órden de impulsion que tuvieron en la principal movilidad. (1883: 770)

Hidalgok (2005), Ricken-en lanean (1978: 149-155) oinarrituz, susmatzen du mugikortasunezko nobleziari dagokionez Astarloaren iturria Batteux

¹⁵ Agidanez, nola edo hala mintzagai egitura kontuan hartu zuen lehenengo euskal gramatikaria Pierre Urte (1712) izan zen, pertsona-izenordainen agertzea «causa discretionis» edo «raison ou cause de Discretion» dagoenean gertatzen dela esan baitzuen; hau da, pertsonak aditz jokatuaren barnean adierazten direnez gero, izenordaina ez da perpausean beharrezkoa, frantsesean den bezala, eta haren agertzea fokoa edo galdegaia markatzea izango litzateke (cf. Oyharçabal 1989: 71, Hidalgo 2005: [41]-[42]).

(1764 eta beste)¹⁶ izan zitekeela, hark ere «*movil*- hitza bera eta antzeko konzeptua erabiltzen» dituelako (Hidalgo 2005: [122]). Alabaina, Batteux-ek *ordre oratoire* deitzen dio hitzen garrantziaren (*importance*) edo hitzunaren interesaren (*intérêt*) arabera antolatzen den hitz ordenari, eta ez du *mobile* hitza, ez antzekorik ere, inoiz baliatzen (bai, ordea, Ricken-ek).

Egia da, halere, bi autoreon proposamenen artean antzekotasun handiak aurki ditzakegula. Xehetasunak, eta baita Astarloaren iturri zuzena izan zitekeen arazoa ere, beste lan baterako utziaz, ikus ditzagun Batteux-en oinarrizko ideiak. Lehenik eta behin, hiru hitz ordena mota bereizten ditu, ordena gramatikala, ordena metafisikoa eta ordena oratorioa (Batteux 1764 [1824: 6-7]). Ordena gramatikalean, determinatzailea determinatua baino lehen kokatzen da; hitzen gobernuan oinarritzen da, beraz. Ordena metafisikoan, perpaus baten subjektua atributua baino lehen kokatzen da, kausa ondorioa baino lehen, substantzia edo existentzia moduak eta kualitateak baino lehen. Eskuarki, ordena gramatikala metafisikoarekin bat etortzen da, baina hizkuntza guztiek ez dute berdin jokatzeko; horregatik —dio Batteux-ek— ezin da naturala izan, naturak ezin baitu bide bat besterik izan (1764 [1824: 8]). Ordena oratorioan, aldiz, garrantzi handieneko hitza, hitzunarentzat interes handiena duena, perpausaren hasieran kokatzen da (1764 [1824: 17]); eta, Batteux-en ustez, hauxe da ordena naturala: «l'arrangement naturel des mots doit être réglé par l'importance des objets» (1764 [1824: 4]).

4. Ondorioak eta egitekoak

Ezin uka Astarloaren sintaxiak berrikuntza handiak ekarri zizkiola orduko euskal gramatikagintzari. Gramatikaren beste atal batzuetan bezala, *Diskurtso filosofikoek* eredu latindar klasikoarekiko morrontzarekin hautsi zuten eta Frantziako gramatika orokorraren ildotik jo zuten. Sintaxiaz denaz bezainbatean, erakutsi dugu Astarloaren proposamenak XVII. mendetik ugari ziren hitz ordena naturalari buruzko eztabaidetan txertatzen direla. Zehazkiago, Frantziako arrazionalisten eta sensuialisten ikuspegiak ikusirik, Astarloarena sensuialistenari atxikiago agertzen zaigu: alde batetik, hitz ordena natural finkoa kritikatu zuen; beste alde batetik, hitzak naturaren arabera ordenatzerakoan, borondateari eman zion garrantzia. Ildo honetatik, komunikazio prozesua eta haren eragileak hartu zituen kontuan, hitzak irizpide pragmatiko baten arabera hurrenkeran jartzeko. Bestela esanda, eginkizuneko hitz ordena «naturalaren» eta finkoaren gainera Astarloak merituzko edo mugikortasuneko hitz ordena pragmatikoa jarri zuen, euskararen mintzagai egitura aintzat hartuz.

¹⁶ Astarloak frantsesez irakurtzen zuela jakinda ere, oroit bedi Batteux-en *Principes de littérature* gaztelaniara itzuli zela eta 1797-1805 bitartean argitaratu zela (cf. Urzainqui 1989: 241-242).

Aztertzeke geratu dira Astarloaren ideia sintaktikoen iturri zehatzak. Aurreko orrialdeetan aipatu dut Batteux izan zitekeela hautagai posible bat. Zernahi gisaz, bi autoreon arteko loturak xehekiago aztertu beharko lirarteke, eta beste egile sentsualista batzuen lanak ere ikertu. Aztertzeke utzi dut, orobat, Astarloaren sintaxiaren eragina. Ezaguna da, esaterako, Astarloaren ideiek Azkueren *Izkindean* izan zuten isla (Laka 1986), eta sintaxiaren atalean ere nabarmena da oso (cf. Hidalgo 2005: [462]-[465]): oraingoan zehaztasun gehiago aipatu gabe, Azkuek Astarloaren hiru nobleziak baliatzen ditu, deiturak zertxobait aldatzen badizkie ere (*iatorrizkoa*, *egikizunekoa* eta *eragintasunekoa* deritze). Beraz, Astarloa eta Azkueren sintaxien arteko harremanak sakonki ikertu beharko lirarteke, baita Astarloaren eragina izan zezaketen beste egile batzuk miatu ere, durangarraren ideien errepikapen edo laburpen soiletatik haratago, jakina (Zamakola edo Campi3n lirarteke azken honen adibideak; cf. Hidalgo 2005: [128], [270]-[271]).

5. Bibliografia

- Arnauld, Antoine & Claude Lancelot, 1660, *Grammaire g3n3rale et raisonn3e*, Paris.
- Astarloa, Pablo Pedro, 1803, *Apolog3a de la lengua bascongada*, Madril: G. Ortega. [Berrargit. faksim. Bilbo: Amigos del Libro Vasco, 1983; Valentzia: Librer3as «Par3s-Valencia», 1993].
- , 1883 [1805], *Discursos filos3ficos sobre la lengua primitiva 3 Gram3tica y an3lisis razonada de la euskara 3 bascuence*, Bilbo: P. Velasco. [Berrargit. faksim. Bilbo: Amigos del Libro Vasco, 1988].
- Batteux, Charles, 1764, «Traite de la construction oratoire», in *Principes de Litt3rature [...]. Nouvelle 3dition, r3vue et corrig3e avec soin par E. P. Allais*, V, 1-277, Paris: A. Delalain, 1824.
- Blair, Hugh, 1787, *Lectures on Rhetoric and Belles Lettres*, Londres: A. Strahan & T. Cadell; Edinburgo: W. Creech.
- Chevalier, Jean-Claude, 1968, *Histoire de la Syntaxe. Naissance de la notion de compl3ment dans la grammaire fran3aise (1530-1750)*, Gen3ve: Droz. [Bigarren argit. Paris: Honor3 Champion, 2006].
- Delesalle, Simone, 1986, «La probl3matique de l'ordre des mots, 1750-1850», in S. Delesalle & J.-C. Chevalier (arg.), *La linguistique, la grammaire et l'3cole, 1750-1914*, Paris: A. Colin, 37-77.
- Diderot, Denis & Jean d'Alembert, 1751-1772, *Encyclop3die, ou Dictionnaire raisonn3 des sciences, des arts et des m3tiers*, Paris. Berrargit. elektr. <<http://portail.atilf.fr/encyclopedie/>> [Kontsulta: 2008-03-26].
- Garc3a Folgado, M.^a Jos3, 2004, «La ense3anza de la gram3tica espa3ola en la segunda mitad del siglo XVIII: la obra de Guillermo Antonio Crist3bal y Jaramillo», in M. Villayandre (arg.), *Actas del V Congreso de Lingüística General: Le3n 5-8 de marzo de 2002*, II, Madril: Arco/Libros, 2.^a, 1157-1166.
- , 2008, «Los Principios de Gram3tica General de Pich3 y Rius (1813)», in *Actas del VI Congreso Internacional de la Sociedad Espa3ola de Historiograf3a Lingüística* (inprimategian).

- García-Jalón, Santiago, 1999, «Las partes de la oración en la *Tabula* de Clenardo», in M. Fernández, F. García & N. Vázquez (arg.), *Actas del I Congreso Internacional de la Sociedad Española de Historiografía Lingüística*, Madrid: Arco/Libros, 325-333.
- Givón, Talmy, 1971, «Historical syntax and synchronic morphology: an archaeologist's field trip», *Chicago Linguistic Society* 7, 394-415.
- Gómez, Ricardo, 2001, «Artículo y "artículo" en la tradición gramatical vasca», in M. Maquieira, M. D. Martínez Gavilán & M. Villayandre (arg.), *Actas del II Congreso Internacional de la Sociedad Española de Historiografía Lingüística. León, 2-5 de marzo de 1999*, Madrid: Arco/Libros, 465-478.
- , 2002, «Astarloaren ekarpena euskal gramatikaren ikerketetan», *Euskera* 47: 2, 857-867.
- , 2004, «Astarloaren *Discursos filosóficos*: iturriak eta axiomak», *Lapurdum* 9, 117-133.
- , 2006, «"Aditz bakarraren" teoria XIX. mendeko euskal gramatikagintzan», *ASJU* 40: 1/2 (= J. A. Lakarra & J. I. Hualde, arg., *Studies in Basque and Historical Linguistics in memoriam of R. L. Trask-R. L. Trasken oroitzapenetan ikerketak Euskalaritzaz eta Hizkuntzalaritza Historikoaz*), 377-407.
- , 2007, *XIX. mendeko euskal gramatikagintzari buruzko ikerketak* (Doktorego Tesiak Saila). Bilbo: UPV/EHU.
- Graffi, Giorgio, 1998, «The Treatment of Syntax by Some Early 19th-Century Linguists: New insights and the continuity of general grammar», *HL* 25: 3, 257-284.
- Harris, James, 1751, *Hermes: or, a philosophical inquiry concerning language and universal grammar*, Londres: H. Woodfall.
- Hidalgo, Bittor, 2005 [1995], *Hitzen ordena euskaraz*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHUko doktorego tesia. Argit. elektr. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea: <http://www.inguma.org/tesiak/Hidalgo_Eizagirre_1995.pdf> [Kontsulta: 2008-03-26].
- Laka, Itziar, 1986, «*Euskal Izkindeako* aditza (Hiperbizkaieraren historiaz II)», *ASJU* 20: 3, 705-754.
- Martí Sánchez, Manuel, 1994, «La primera teoría del complemento en la gramática española», *REL* 24: 1, 21-38.
- Oyharçabal, Beñat, 1989, «Les travaux de grammaire basque avant Larramendi (1729)», *ASJU* 23: 1, 59-73 [Berrargit. in R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), 1992, *Euskalaritzaren historiaz, I: XVI-XIX. mendeak*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU, 91-105].
- Perez Landa, Edurne, 2006, «Hitz ordena XVII-XIX. mendeetako zenbait euskal gramatikatan», Gasteiz: UPV/EHUko eskuizkribu argitaragabea.
- Ricken, Ulrich, 1978, *Grammaire et philosophie aux siècles lumières. Controverses sur l'ordre naturel et la clarté du français*, Lille: Univ. de Lille III.
- Rivarol, Antoine, 1784, *De l'universalité de la langue française. Discours qui a remporté le prix à l'Académie de Berlin*, Berlin. [Berrargit. Paris: Obsidiane eta Jean Dutourd (arg.). Paris: Arléa, 1991].
- Urte, Pierre, 1712, *Grammaire Cantabrique Basque* (Shirburn Gazteluko Liburutegia: North Library, 112, H 18). [W. Webster-en arg. Bagnères-de-Bigorre: D. Barrot, 1900].
- Urzainqui, Inmaculada, 1989, «Batteux español», in F. Lafarga (arg.), *Imágenes de Francia en las letras hispánicas*, Bartzelona: Promociones y Publicaciones Universitarias, 239-260.

